



ITSASONDOKO  
UDALA



## ITSASONDOKO **GAZTELEKU** - ko **ARAUTEGI OROKORRA** *(Modu autonomoan erabiltzeko)*

### DESKRIBAPENA

Gaztelekua itsasondoko nerabeei zuzenduriko zerbitzua da. Bertan, aisialdirako ekintza desberdinak proposatzen dira eta hezitzaile baten laguntzaz edota modu kolektibo ez-gidatu batean, aurrera eramaten dira. Maila indibidualean autonomia eta erantzukizuna garatuz, komunitate mailan aritzeko gaitasunak eskuratzea da helburua eta gazte hauek herriko parte hartzaile bihurtzea.

### NORENTZAT

Gaztelekua 14 urtetik aurrera erabili ahalko da modu autonomoan.

### SARBIDEA

Bertara sartu ahal izateko honakoa izan beharko dugu kontuan:

- ⤴ 14 – 16 urte bitartekoak **gurasoen txartelarekin** bakarrik sartu ahalko dira, betiere jarrera ona izaten badute. Jarrera txarraren aurrean (zalapartaka ibili, liskarrak izan, gauzak jaso gabe utzi, materiala ardura gabe erabili...) arreata adineko edonork dei diezaieke eta udalak neurriak hartu ahal izango ditu.
- ⤴ 16 urtetik aurrera espazio honetan sartzeko **txartela** egin ahalko da.

### Nola egingo dugu sarbide txartela?

- ⤴ Txartelaren kostua 3 €-takoa da.
- ⤴ Txartela udalean egin beharko da, aurrez aurreko harreran (astelehenetik ostiralera 8:30 – 14:00).



**ITSASONDOKO  
UDALA**



- ⚡ Txartela eskuratzeko eskabide orria bete beharko da eta horretarako nahikoa izango da arduradunaren datuak jartzea (izen-abizenak, DNI zenbakia, posta elektronikoa, telefono zenbakia...).

## **ESPAZIOA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK**

### **Ordutegia eta erabilera egunak**

- ⚡ Astelehenetik ostiralera eta asteburuetan:
  - Astelehenetik ostegunera: 17:00 – 20:00
  - Ostiraletan: 17:00 – 20:00 | Hezitzailearekin
  - Ostiraletan: gehienez 00:00ak arte. 22:00etatik aurrera ISILTASUNA
  - Larunbatetan: gehienez 00:00ak arte. 22:00etatik aurrera ISILTASUNA
  - Igandetan: gehienez 22:00ak arte.

**Bizilagun, guraso edota herritarrak kexatzen badira neurriak hartu beharrean izango da udala.**

### **Erabilera partekatua**

- ⚡ Gaztelekuko nerabeak eta hezitzailea ostiraletan egoten dira bertan, 17:00etatik 20:00etara.
- ⚡ Gaztelekurako lehentasuna udalak izango du bertan antolaturiko ekitaldietan.

### **Erabilera arauak**

- ⚡ Erabilpenak irauten duen denbora horretan aretoaren erantzukizuna erabiltzailearena izango da bertan daudela edozein kalte gertatuta ere. Erabilpena amaitu ondoren, lokala jasota eta txukun utzi behar da, hasieran zegoen bezala. Erabilpena egiterakoan antzemandako edozein gertaeraren berri, erabilpen fitxan idatzi beharko da. Fitxan ez bada inolako gertaeren berri ematen, lokala egoera onean zegoela ulertuko da.



## ITSASONDOKO UDALA



- ⚡ Gaztelekuan ezingo da erre ezta alkoholdun edaririk kontsumitu.
- ⚡ Gaztelekuan inor ez bada gelditzen kanpoko atea itxita geratzen dela bermatu beharko da.
- ⚡ Giltza galduz gero, lehenbailehen horren berri udaletxean eman beharko da. Giltza berriak suposatzen duen kostua erabiltzailearen gain izango da.

**Erabilera okerraren aurrean udalak edonori kendu diezaioke txartela.**

### **GARBIKETA**

- ⚡ Erabiltzailea bera arduratu beharko da eguna bukatzean espazioa txukun uzteaz eta dagokionean sortutako zaborra ateratzeaz. Garbitasuna mantentzeko behar diren garbigarriak udalak jarriko ditu.
- ⚡ Egunerokotasunean, Gaztelekuko erabiltzaileak arduratu beharko dira zaborraren gaia kudeatzeaz.
- ⚡ Hilean behin udaleko garbitzaileak pasako dira Gaztelekua garbitzera, baina **garbitasuna mantentzea erabiltzaileen ardura izango da.**

### **MANTENUA / HORNIKUNTZA**

- ⚡ Materiala falta bada edo iradokizunen bat badago, udalean abisatu beharko da.
- ⚡ Behar diren konponketak eskaera ofizial bidez egingo dira udaletxean.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **ESKABIDEA**

Izen-abizenak:	
Nerabearen izen-abizenak:	
Helbidea:	
NAN:	
Herria:	
Telefono zenbakia:	
Posta elektronikoa:	

Eskabide hau betez:

1. ITSASONDOKO GAZTELEKU- KO SARBIDEA ESKATZEN DUT.
2. ALDI BEREAN, AURREZ AIPATURIKO ARAUAK BETETZEKO KONPROMEZUA HARTZEN DUT.

Itsasondon, \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ an

**SINADURA**